



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALAREN ETA EMENDEK ARRAUN KIROL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Tolosako udaletxean, sinadura elektronikoan zehazten den egunean,

ELKARTURIK

Alde batetik, Aitzol Luis García Azurmendi, Tolosako Udaleko Kultura eta Festetako Zinegotzi Delegatua, Tolosako Udaleko Idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

.

Eta bestetik, Antonio Merino Mendoza 44168605A jaunak Emendek Arraun kirol Elkarteko lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Bizkai kalea 4,. IFKa: G200796799 .

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Antonio Merino Mendoza Emendek Arraun kirol Elkartearen izenean eta ordezkaritzan, Lehendakari gisa, 2022ko abuztuaren 8eko aktaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau emateko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardueren mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: kultur jardueren eta guneen sustatzea.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu, kultura eta kultur-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea tartean.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak

ESKUfba56b3f-93ce-474a-97b5-fef357985bbb



TOLOSAKO
UDALA

aprobetxatzen ahaleginduko dira.

II.- Emendek Arraun kirol Elkartek 2025ko maiatzaren 29an, 7619) 2025. urteko aktibitatean egitaraua aurkeztu du. Kasu honetan 2025eko San Blas Jaiak antolatzaeko diru laguntza

Dokumentu honetan honako aktibitate nagusi hau azaltzen da:

- Txupinazoa
- Toka-lehiaketa
- Trikitixak
- Ume-Jolasak
- Disko-festa
- Txistulariak
- Txarangak, Aizkolariak, bertsolariak

Aktibitate hauetarako aurreikusten duten aurrekontua honako hau da:

- Gastuak 19.575,02
- Sarrerak 15.698,70

III.- Emendek Arraun kirol Elkartek Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko dituen betebeharrak eta dirulaguntza jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu ditu. Era berean, frogatu ahal izan da diruz laguntzeko eskatzen diren jarduerak bat datozela elkartearen estatutuetan arautzen diren xedeekin.

IV.- Tolosako udalak 2025 urterako onartutako aurrekontuetan 3.350 € dirulaguntza izenduna onartu du Emendek Arraun kirol Elkarteen jarduera laguntzeko 0800 481.14 33800 zenbakidun partidan.

V.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehenen Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Emendek Arraun kirol Elkarteen arteko lankidetzarako 2025 urterako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerrriaren barruan.

Bigarrenen Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Txupinazoa
- Toka-hehiaketa
- Trikitixak
- Ume-Jolasak
- Disko-festa
- Txistulariak



TOLOSAKO
UDALA

Txarangak, Aizkolariak, bertsolariak

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziakzioa.

Tolosako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2025eko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 3.350 euro izango dira, 0800 481.14. 33800 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, kasu horretan, ulertuko da diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela, finantzaketa publikoa, halakorik bada, itzuli behar delarik jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Emendek Kirol Elkartearen jarduerak finantzatzeko laguntza edo subentzioa, gehienez ere, jarduera haien kostuaren %70a helduko da.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru- laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen hau urte batekoa da eta haren indarraldia 2025eko urtarrilaren 1ean hasi eta 2025eko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoaren arabera.

ESKUfba56b3f-93ce-474a-97b5-fef357985bbb



TOLOSAKO
UDALA

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziazat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 31. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatzeko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo hau izango da:

2026eko urtarrilaren 31a baino lehen:

a) Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko den zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Memorian berariaz jaso behar da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuen aldean benetan lortutakoen ebaluazio bat.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera, memoria sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.

b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea, non diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastu eta diru- sarrerek jasoko dituen.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako Udalaren BAL izeneko dokumentua erabili behar da horretarako eta erakunde onuradunaren lehendakariak edo idazkariak sinatu behar du.

c) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita.

Tolosako udalaren GAS izeneko eredia erabili behar da horretarako eta jatorrizko formatuan (xls) aurkeztu beharko da, inolako sinadurarik gabe.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastu eta inbertsoen zerrenda proiektuaren edo diruz lagundutako jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da eta adieraziko da zein desbideratze izan diren.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili direnean, Tolosako Udalak gastu horri dagokionez finantzatutako ehuneko aldakorra adieraziko da.

GAS dokumentuko gastuen guztizkoak bat etorri beharko du BAL dokumentuko gastuen guztizkoarekin.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta dagokion organoak dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimendua egin ondoren:

Dirulaguntzaren zuriaketa aurkezteko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko denez, organo emailak dirulaguntza egoki aplikatu dela egiaztatze arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagiriaren lagin bat begiratu du.

Horretarako, a), b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, c) letrako gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrendako zenbait gastu eta inbertsioren ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo da:

- fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak.
- eta agiri horien ordainketak eginda daudela egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du aipatutako errekerimendua jakinarazten zaionetik dagokion dokumentazioa aurkez dezan.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera hurrenez hurren ordenatuta. PDF dokumentu bakarrean aurkeztu beharko dira faktura eta gastua ordaindu izanaren dokumentu guztiak.

Egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta kalkulatu da:

☐ Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %25a gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratu dira.
☐ Gainerako egiaztagirietatik begiratu da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: %100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar baino gutxiago badira: %70.
- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: %40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: %30.



TOLOSAKO
UDALA

- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: %20.

Zazpigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, organo eskudunak onartuta, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza honako era honetan ordainduko da:

- %75a aurrerakin gisara, aldeztu aurretik urteko jardueren programa eta aurrekontua aurkeztuta, baldin eta justifikatuta badago ordainketa aurreratzeko beharra subentzio-gai diren jarduerak aurrera eramanez ahal izateko. Bestalde, organo eskudunak erabakiaren jakinarazpena egin eta dirulaguntzaren hitzarmena sinatu ondoren.
- Gaitortzekoa, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu eta organo eskudunak horren oniritzia eman ondoren. Justifikazioa hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar delarik.

Betebeharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Zortzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Tolosako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Bederatzigarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu – euskarari lehentasuna emanda – diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzi a izan, berdin jokatu beharko du.

Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduerara egin dela justifikatzerakoan egiaztatuko beharko da.

Hamargarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango ondorengo hauek:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduerak, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.



TOLOSAKO
UDALA

- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legean, edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamaikagarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Batzorde hau elkarteko bi ordezkari eta Tolosako udaleko kultur zinegotziak eta kultur teknikarietako batek osatuko dute.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamabigarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena: Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamalagarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabostgarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 10.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurrean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamaseigarrena: Ordezko legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitezkeen guztian, beteko dutela.



TOLOSAKO
UDALA

Hemezortzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluari, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluari eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluari ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatze behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta sinadura elektreonikoaren egunean; Jarduneko Idazkaria naizen honek fede ematen dut.

Jaietako zinegotzi delegatua

Emendek Elkarteko lehendakaria

Aitzol Luis Garcia Azurmendi

Antonio Merino Mendoza

IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

